biblioteca COAM




**BASTERRETXEA, NÉSTOR**

Néstor Basterretxea : diseinua eta arkitektura = diseño y arquitectura / [komisarioak = comisariado: Peio Aguirre, Pedro Feduchi, Pedro Reula]. -- Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, D.L. 2024

269 p. : il., fot. col. y n., plan., alz., secc. ; 24 cm.

El presente libro ha sido editado con motivo de la exposición "Néstor Basterretxea. Diseño y arquitectura", celebrada en el Museo de Bellas Artes de Bilbao del 28 de febrero al 26 de mayo de 2024 para conmemorar el centenario del nacimiento del artista

Notas biográficas

Bibliografía en notas

D.L. BI. 172-2024
ISBN 978-84-18171-17-8

1. Basterretxea, Néstor 2. Catálogos de exposiciones 3. Crítica e interpretación 4. Diseño 5. Diseño arquitectónico 6. Diseño de muebles 7. Diseño industrial 8. Exposiciones 9. Mobiliario 10. Proyectos arquitectónicos 11. Siglo XX (2ª mitad) I. Aguirre, Peio II. Feduchi Canosa, Pedro III. Reula, Pedro IV. Museo de Bellas Artes de Bilbao

11.12 Monografías
COAM 24172 0





# Néstor Basterretxea

Diseinua eta arkitektura
Diseño y arquitectura

# Néstor Basterretxea

Diseinua eta arkitektura
Diseño y arquitectura

**Aurkibidea |**
**Índice**

Basterretxea eta Huarte. Mugako diseinua edo arteen integrazioa |
Basterretxea y Huarte. Diseño en la frontera o de la integración de las artes
Pedro Reula [15]

Oteizak, Basterretxeak eta Valletek proiektatu eta eraikitako tailer-etxeari buruzko txostena. Irun, 1955-1958 |
Informe sobre la casa-taller proyectada y construida por Oteiza, Basterretxea y Vallet. Irun, 1955-1958
Gilermo Zuaznabar [55]

Espiral proiektua: argazkien irakurketa bat |
El proyecto Espiral: una lectura de sus fotografías
Rocío Robles Tardío [95]

Néstorren altzariak. Biok etxeko altzariak |
Los muebles de Néstor. Los muebles de Biok
Pedro Feduchi [135]

Espresioaren eta funtzioaren artean: Basterretxearen arkitekturak |
Entre la expresión y la función: las arquitecturas de Basterretxea
Peio Aguirre [209]

Néstor Basterretxea. Diseinua eta arkitektura. Ohar biografikoak |
Néstor Basterretxea. Diseño y arquitectura. Notas biográficas [265]

Orain aurkezten dugun erakusketa hau garrantzitsua dela esatea ez da erretorikoa inola ere. Benetan baita garrantzitsua, arrazoi askorengatik.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da artista baten jaiotzaren mendeurrena ospatzen duela: Néstor Basterretxea artistarena, alegia. Chillida eta Oteizarekin batera, arte berri bati bidea irekitzeaz gain, gerraosteko Euskal Herrian abangoardiako lehen belaunaldiaren parte izan zen. Basterretxea erabakimenez hurbildu zen bere sorkuntza jardueraren ardatz izan ziren adierazpideetatik urrun zeuden hainbat adierazpidetara. Erakusketak arkitekturan egin zituen lanen eta, batez ere, diseinu industrialaren arloan egin zituenen sorta hautatu interesgarri bat biltzen du; hain zuzen ere, luze eta zabal garatu zuen diseinu industriala 1950eko hamarkadaz geroztik, eta arlo hori lantzen aitzindarietakoa izan zen gure herrian.

Erakusketa museoaren une erabakigarri batean aurkezten da, gainera. Etorkizunean egingo den handitze fisikoarekin batera, edukiak ere hedatuko dira, asmo handi bati jarraituz: diseinuari eta arkitekturari eskainitako bilduma berri bat eratzea. Horrela, bi diziplinak instituzioaren historiaren gorputz beraren parte izan badira, jarraian ikusiko dugunez, aurrerantzean protagonismo berritu bat hartuko dute bilduman ere presentzia sistematikoa izanda.

Aipatutako bi adierazpen artistikoak gure jarduera propiotzat hartzearen adibide dira, alde batetik, Adolf Loos eta Manuel María Smith Ibarra arkitektoen gaineko erakusketa antologikoak, 1990eko hamarkadan antolatuak, eta, bestetik, berriki argitaratutako museoaren arkitekturen azterketa zorrotz bat, Maite Paliza irakaslearen ardurapean egina. Bestalde, diseinuarekiko interesa aditzera ematen dute, halaber, gure kartelen bilduma baliotsuak, zeinak biltzen baitu garai, espazio eta gai sorta zabala; 2020an ospatutako erakusketa handi batean Otl Aicherren lanaz egindako aldarrikapenak edo handik urtebetera argitaratutako Bilboko hiri inguruko azpiegitura osatzen duten osagaien katalogazio zehatzak.

Basterretxearen txanda da orain, hari eskainia baita erakusketa hau, zeinaren bidez erakusgai jarri nahi baita diseinatzaile eta arkitekto gisa egin zuen lana. Hainbat obra hautatu dira horretarako, ezagunak baina orain arte hemen ikusiko duguna bezain monografia zabal eta zehatz batean inoiz bildu, ikertu eta argitaratu gabeak. Eta, horregatik, eskerrak eman behar dizkiegu, ezer baino lehen, Peio Aguirre, Pedro Feduchi eta Pedro Reula komisarioei, erakusketaren zerbitzura eta, Rocío Roblesekin batera, hari loturiko argitalpenaren zerbitzura jarri baitute beren ezagutza eta egiten jakitea. Artistaren familiak eta urte haietan berarekin estuki elkarlanean aritu zirenek berebiziko laguntza eskaini digute, beharrezko material eta dokumentu guztiak museoaren eskura jarriz. Eta ezin izango genukeen hau lortu, halaber, museoen eta obra mailegatu duten partikularren prestutasuna gabe, eta, beste behin ere, Petronorrek emandako babesa gabe. Guztiei zor diegu esker ona memoria ariketa

hau ahalbidetu izanagatik, XX. mendearen bigarren zatiko euskal eta espainiar testuinguruan merezi duen garrantzia eman dion Basterretxea diseinatzaile eta arkitektoari.

Juan Mari Aburto Rique
Bilboko Udaleko alkatea eta
Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioaren presidentea

Miguel Zugaza Miranda
Arte Ederren Bilboko Museoaren zuzendaria

Calificar de importante la exposición que ahora presentamos no tiene nada de retórico. Lo es por muchos motivos.

Comencemos señalando que sirve para celebrar el centenario del nacimiento de un artista, Néstor Basterretxea, que, con Chillida y Oteiza, abrió el camino de un arte nuevo y constituyó una primera generación de vanguardia en la Euskadi de posguerra. Un artista que se acercó con determinación a múltiples formas expresivas alejadas de aquellas que centraron su actividad creativa, la pintura y la escultura. La muestra reúne una interesante selección de sus trabajos en los ámbitos de la arquitectura y, sobre todo, el diseño industrial, que desarrolló ampliamente desde la década de 1950 como uno de los pioneros en nuestro país.

La exposición tiene lugar, además, en un momento decisivo para el museo, en el que su futura ampliación física camina en paralelo a una extensión de sus contenidos con el ambicioso objetivo, ya en marcha, de configurar una nueva colección dedicada, precisamente, al diseño y la arquitectura. De este modo, si ambas disciplinas han formado parte del mismo cuerpo de la historia de la institución, como seguidamente veremos, en adelante su presencia sistematizada también en la colección les dará un protagonismo renovado.

Sirvan como ejemplo de la consideración de estas dos expresiones artísticas como propias de nuestra actividad las muestras antológicas en torno a los arquitectos Adolf Loos y Manuel María Smith Ibarra, organizadas ya en la década de 1990, o más recientemente la publicación de un riguroso estudio de las arquitecturas del museo a cargo de la profesora Maite Paliza. Por su parte, el interés por el diseño se manifiesta en nuestra valiosa colección de carteles, con su extenso abanico temporal, espacial y temático, en la reivindicación del trabajo de Otl Aicher en una gran muestra celebrada en 2020 o en la detallada catalogación de los componentes que configuran la infraestructura del suburbano bilbaíno, publicada un año después.

Es el turno ahora de Basterretxea, al que dedicamos esta exposición que recupera su práctica como diseñador y arquitecto a través de un gran número de obras que, si bien eran conocidas, nunca se habían agrupado, estudiado y publicado en una monografía de la extensión y el rigor que aquí observamos. Y esto debemos agradecérselo, en primer lugar, a los comisarios –Peio Aguirre, Pedro Feduchi y Pedro Reula–, que han puesto al servicio de la exposición y de la publicación que la acompaña –junto con Rocío Robles en esta última– todos sus conocimientos y su saber hacer. Hemos contado también con la inapreciable ayuda de la familia del artista y de aquellos que durante esos años colaboraron estrechamente con él, poniendo a disposición del museo todos los materiales y documentos imprescindibles para realizarla. Tampoco hubiéramos podido hacerlo sin la generosidad de las instituciones y particulares que han prestado su obra y sin el patrocinio que, una vez más, nos ha proporcionado Petronor. A todos ellos les debemos nuestro reconocimiento por permitirnos este ejercicio

de memoria que al fin concede al Basterretxea diseñador y arquitecto la relevancia que merece en los contextos vasco y español de la segunda mitad del siglo XX.

Juan Mari Aburto Rique
Alcalde del Ayuntamiento de Bilbao y
presidente de la Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Miguel Zugaza Miranda
Director del Museo de Bellas Artes de Bilbao

**Ama Lur**

Gaur balitz bezalaxe gogoratzen dut Basterretxearen zinema-lan hau estreinatu zenekoa. Nola ikusi nuen debozio biziz, diktadurapeko garai ilun baina aldi berean Euskal Herrian gertatzen ari zen bultzada kultural eta industrialaren ikuspegitik argitsu haietan. Zirraratu egin ninduen. Oroitzen ditut hala paisaiarenganako sentiberatasuna nola edertasun industriala, eta, osotasuna, natura eta industria, gure Herriaren mundu sinbolikoaren testuinguruan, sorkuntza artistikoa gorpuzten.

10 urte nituen, 1966. urtea zen. Sinbolismo eta garrantzi handiko urte bat, zeinean Gaur taldeak, Dionisio Barandiaran enpresaburuarekin bat eginik, aldarrikatu baitzuen arteak zer-nolako garrantzia zuen Herrialde baten eraikuntza kolektiboan. Arestian azaldutakoa idazki honetara dakarkit erakusketa hau testuinguruan kokatzeko eta nabarmentzeko, beste behin ere, artea ez zaiola arrotza enpresari eta bidezkoa dela enpresak artearekin izan duen aliantza tradizionala berrezartzea, artea harturik zibilizazioaren sinonimotzat. Garai batean, errealitate izan zen. Izan bitez horren eredu museoa bera eta haren obra, Huarte familia, eta abar. Berreskura dezagun gizarte zibilaren protagonismo hori, mezenasgorako tresnen bidez, nondik gatozen ahaztuz gero nekez jakingo baitugu norantz goazen. Artea eta enpresa dira gizartearen arima elikatzen duen osotasun baten parte, eta, gizarteak aurrera egin dezan, ezinbestekoa da erdigunean jartzea kultura eta herritarrak, eta ez populismoa.

Miguel Zugazaren eginbide zuzenari eta komisarioen erabateko profesionaltasunari esker aurkezten den honako erakusketa honek agerian uzten du arteak, arkitekturak, ingeniaritzak eta diseinu industrialak ordena bat osatzen dutela ez soilik gorpuzten duena edertasuna eta gauzen funtzionaltasuna, baizik eta merkatuan bizitza duena. Orobat erakusten du zorroztasuna, berrikuntza eta diziplinarteko lankidetza, baita teknologia eta ekoizpena integratzea ere, alderdi biziki esanguratsuak direla eguneroko bizitzarako irtenbideak eskaintzen dituen obra baten (produktu baten) sorkuntzan.

Diseinu industriala arte aplikatutzat hartu izan zen aurreko mendeko berrogeita hamarreko hamarkadara arte; garai hartan, Ulmeko eskolak (1953), diseinua eta ekoizpena arrazionalizatzeko Bauhausek aurrez egindako saiakeretatik abiatuta, produktuaren eta hura lantzeko prozesuaren alderditzat, eta ez nolanahiko alderditzat, aitortu zuen. Edertasuna eta ikuspegi industriala ez ziren antitetikoak, beraz, erdi mailako klase gero eta ugariago batek konkistatzen ziharduen gizarte hartan. Guillermo Capdevila nire adiskide maiteak beti esaten zidan diseinatzaileak aktiboki inplikatu behar zuela produktuaren fabrikazioan. Miretsi eta maitatu egin behar zen produktua, baina haren fabrikazioak eraginkorra behar zuen izan kostuei zegokienez. Eta ildo horri jarraituz jardun zuen makina-erremintako osagaiak, vending makinak, etxetresnak, errezela-hormak, eta abar diseinatzen.

Giugiarok automobilen arloan izandako eraginak edo altzari atenporal eta ikonikoen –Mies van der Rohe, Le Corbusier, Alvar Aalto, Miguel Milá eta bestek diseinatutakoen– inpaktuak dira diseinu industrialaren unibertsoaren erakusgarrietako bat, eta unibertso horretan kokatzen dut nik Basterretxearen obra ere, berezko protagonismoa duena. Bazterrean utzi gabe arkitekturari egin zion ekarpena, zeinaren ahanztura tamalgarriaren erakusgarri den Luis Vallet eta Jorge Oteizarekin batera Irunen proiektatu zuen eraikinaren narriatze hondatzailea.

Erakusketan ikusgai jarritako obren multzoak argi aditzera ematen du gure industriak zenbaterainoko ahalmena duen ideiak eta planoak produktu sendo eta kalitatezko bihurtzeko. Gainera, Europan dugun posizioari buruz gogoeta egitera eraman beharko gintuzke. Gure eskaintza industrialari balio bereizgarria emateko gai garen heinean soilik izango dugu etorkizunik, eta, horretarako, ezinbestekoa da erosotasunaren eremutik irtetea, horrek berrikuntza blokeatzen baitu Diseinu industrialak garrantzi handiko zeregina du prozesu horretan. Memoria berreskuratzeak orobat esan nahi du berreskuratzea, esate baterako, garai zailetan Arantzazu posible egin zuten kuraia eta espiritu eraldatzaile hura. Erakusketa hau ikusteak ulertaraziko digu diseinu industriala gure ongizate gizartearen garapenaren muinaren parte dela, berarekin baitakartza ezagutza, lankidetza, erabakimena eta ausardia.

Azken batean, omenaldi txiki bat egin nahi die gaur gu guztiok hemen egotea ahalbidetu dutenei, haiei esker ari baikara beren lanaren ernamuinetik garatutako garia dastatzen, Néstor Basterretxearen obraz gozatzen.

Amaitzeko, Joxan Artzeren poema baten pasarte bat ekarri nahi nuke, artistaren espiritua ezin hobeto islatzen duena:

*Iturri zaharretik*
*Edaten dut,*
*Ur berria edaten,*
*Beti berri den Ura,*
*Betiko iturri zaharretik.*

Emiliano López Atxurra
Petronorren presidentea

**Ama Lur**

Recuerdo, como si fuera hoy, el estreno de esta obra cinematográfica de Basterretxea. Cómo la vi, envuelto en la devoción de aquellos tiempos tan oscuros por la dictadura y, a la vez, tan luminosos desde la perspectiva del impulso cultural e industrial del País Vasco. Me impactó. Mis recuerdos van desde la sensibilidad hacia el paisaje hasta la belleza industrial, y su conjunto, naturaleza e industria, contextualizado en el mundo simbólico de nuestro País, dando cuerpo a la creación artística.

Tenía 10 años y era 1966. Un año simbólico, clave, en el que el grupo Gaur, aliado con el empresario Dionisio Barandiaran, reivindicó la importancia del arte en la construcción colectiva de un País. Traigo a colación lo anterior para enmarcar esta exposición y señalar, una vez más, que el arte no es ajeno a la empresa, y la pertinencia de restablecer la tradicional alianza de la empresa con el arte como sinónimo de civilización. En tiempos pasados fue una realidad. Sirvan como modelo el propio museo y su obra, la familia Huarte, etcétera. Rescatemos ese espíritu de protagonismo de la sociedad civil a través de los instrumentos de mecenazgo, porque si olvidamos de dónde venimos, difícilmente sabremos a dónde vamos. El arte y la empresa son parte de un todo que alimenta el alma de una sociedad que solo progresa si la cultura y la ciudadanía, que no el populismo, se sitúan en el centro.

La exposición que se presenta gracias al saber hacer de Miguel Zugaza y la profesionalidad de los comisarios es vivo ejemplo de que el arte, la arquitectura, la ingeniería y el diseño industrial componen un orden que no solo da forma a la belleza y funcionalidad a las cosas, sino que también tiene vida en el mercado. Muestra, además, que el ingenio, la innovación y la cooperación interdisciplinar, así como la integración de la tecnología y la producción, constituyen aspectos relevantes en la creación de una obra (producto) que da soluciones a la vida cotidiana.

El diseño industrial se consideró arte aplicado hasta los años cincuenta del siglo pasado, cuando la Escuela de Ulm (1953), partiendo de los intentos precedentes de la Bauhaus por racionalizar el diseño y la producción, le dio carta de naturaleza como parte no menor del producto y de su proceso de elaboración. Belleza y visión industrial no eran antitéticos en una sociedad que estaba siendo conquistada por una clase media emergente. Mi querido amigo Guillermo Capdevila me decía permanentemente que el diseñador tenía que implicarse activamente en la fabricación del producto. El producto debía ser admirado y querido, pero su fabricación había de ser eficiente en términos de costes. Así lo trasladó a sus trabajos para la máquina herramienta, las máquinas de vending, los electrodomésticos, los muros cortina, etcétera.

La influencia de Giugiaro en el automóvil o el impacto de muebles atemporales e icónicos como los diseñados por Mies van der Rohe, Le Corbusier, Alvar Aalto, Miguel Milá y otros son una muestra del universo del diseño industrial en el que encajo la obra de Basterretxea, que tiene

protagonismo en sí misma. Sin dejar de lado su aportación a la arquitectura, cuyo lamentable olvido se traduce en el deterioro ruinoso del edificio que proyectó en Irun junto con Luis Vallet y Jorge Oteiza.

El conjunto de obras que se presenta nos indica la capacidad de nuestra industria para transformar las ideas y los planos en productos sólidos y de calidad. La muestra debe servirnos, además, para hacernos reflexionar sobre nuestra posición en Europa. Solo tendremos futuro si somos capaces de dar valor diferencial a nuestra oferta industrial y esto pasa por huir de una zona de confort que bloquea la innovación. El diseño industrial juega un papel trascendental es ese proceso. Recuperar la memoria es recuperar el coraje y el espíritu transformador que hicieron posible, por ejemplo, Arantzazu en tiempos difíciles. Contemplar esta exposición nos hará entender que el diseño industrial es parte del alma del desarrollo de nuestra sociedad de bienestar, porque conlleva conocimiento, cooperación, decisión y valentía.

En definitiva, es un pequeño homenaje a todos aquellos que han permitido que hoy estemos aquí, saboreando el trigo que generó la simiente de su trabajo, disfrutando de la obra de Néstor Basterretxea.

Concluyo con parte de un poema de Joxan Artze que refleja bien el espíritu del artista:

*Iturri zaharretik*
*Edaten dut,*
*Ur berria edaten,*
*Beti berri den Ura,*
*Betiko iturri zaharretik.*

Emiliano López Atxurra
Presidente de Petronor

Liburu hau *Néstor Basterretxea. Diseinua eta arkitektura*, erakusketaren karietara argitaratu da. Arte Ederren Bilboko Museoan egin zen erakusketa hori, 2024ko otsailaren 28tik maiatzaren 26ra, artistaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko |
Este libro ha sido editado con motivo de la exposición *Néstor Basterretxea. Diseño y arquitectura*, celebrada en el Museo de Bellas Artes de Bilbao del 28 de febrero al 26 de mayo de 2024 para conmemorar el centenario del nacimiento del artista.


**Erakusketa |**
**Exposición**

Antolatzailea |
Organización
Arte Ederren Bilboko Museoa -
Museo de Bellas Artes de Bilbao

Komisarioak |
Comisariado
Peio Aguirre
Pedro Feduchi
Pedro Reula

Zuzendaritza kuratoriala |
Dirección curatorial
Gilermo Zuaznabar

Koordinatzailea |
Coordinación
Iratxe Olondo

Kontserbaziorako eta
zaharberritzerako tratamenduak |
Tratamientos de conservación y restauración
Jon Apodaca
Mercedes Briones
Laura Casaus
Ainhoa Otaño
María José Ruiz-Ozaita



© edizio honena | de la edición:
Arte Ederren Bilboko Museoa -
Museo de Bellas Artes de Bilbao
© testuena eta itzulpenena: haien egileak |
de los textos y las traducciones: sus autores
© Néstor Basterretxea, VEGAP, Bilbao, 2024



ISBN: 978-84-18171-17-8
Lege-gordailua | Depósito legal: BI 172-2024

**Argitalpena |**
**Publicación**

Edizioa |
Edición
Arte Ederren Bilboko Museoa -
Museo de Bellas Artes de Bilbao

Testuak |
Textos
Peio Aguirre
Pedro Feduchi
Pedro Reula
Rocío Robles Tardío
Gilermo Zuaznabar

Koordinazioa eta edizioa |
Coordinación y edición
Nerea Sagredo

Euskarazko testuen edizioa |
Edición de textos en euskera
Marina Balenciaga

Diseinua |
Diseño
Maite Zabaleta Nerecán

Maketazioa |
Maquetación
Juan José Álvarez

Itzulpenak |
Traducciones
Labayru Fundazioa

Aurreinprimatzea |
Preimpresión
Ateak

Inprimatzea eta koadernaketa |
Impresión y encuadernación
Artefacto

bilbao **museoa**

Arte Ederren Bilboko Museoa
Museo de Bellas Artes de Bilbao

Petronor